

### **3. KOSTU EGITURAK**

Gure enpresan izango ditugun kostuak honako hauek izango dira:

Hasteko, guk lokal propio bat alokatu nahi dugu, bertan gure produktuak saltzeko, gauza guztiak antolatzeke eta bezeroekin harremanetan jartzeko erabiliko dugu. Lokal hau alokatu behar dugunez, bere kostu guztiak aintzat hartu behar dira; kostu zuzena, zuzenean ordaindu dugulako eta kostu finkoa, beti kopuru berdina izango delako. Argiaren eta uraren zerbitzuak ere kontratatu ditugu, beraz kostu zuzena eta finkoa izango dugu. Dendan ordenagailua eta telefonoa edukiko ditugu, beraz hauek ere kostu bat izango dute. Kostu hauez gain aholkulari baten laguntza izan dugunez kostu hauek gehitu behar dira.

Dendan izango dugun ibilgetua erosi dugunez kostu zuzena izan dugu. Bertan salduko diren produktuak (botikina, muletak, gurpildun aulkiak...) kostu zuzena eta aldakorra izango du, izan ere bezeroak erositako produktu kopuruaren arabera izango baita. Gure produktuen garraioa, gure dendatik bezeroen etxera, egiteko furgoneta bat erosi dugu beraz kostu hau gehitu egin dugu.

Azkenik, gure enpresaren langileak gu bostok garenez gure soldata ordaindu behar dugu, kostu hau zuzena eta finkoa izango da. Gu garelako enpresaren jabe eta izango ditugun irabaziak gure enpresa hobetzeko erabiliko baititugu.